



Mirentxuren motxila

Mirentxu, artean erdi lo, ohetik jaiki zen. Huraxe zen eguneko unerik okerrrena Mirentxurentzat. Bainugelara joan eta dutxatu egin zen. Gero, lasai-lasai gosaldtu eta motxila prestatzen hasi zen: liburuak, koloretako arkatzak, sagar bat, kaxatxoak, puxtarriak... zer ez zuen sartu! Baina motxila ixten hasi eta... ezin. Hain zegoen beteta!

Azkenean, presaka irten behar izan zuen Mirentxuk etxetik, berandutu egin zitzaion eta. Ahalik eta azkarren iritsi nahi zuen eskolara. Korrika joan zen, kale argi batekin estropezu egin zuen, putzu guzti-guztietan sartu zen... Eta autobusera igotakoan, diru bila hasi eta...

–Zein zaila den motxilatik dirua ateratzea! –pentsatu zuen, haserre.

Koloretako puxtarri batzuk motxilatik erori eta, lurretik biraka eta biraka, autobuseko begiratzailearen zapata azpiraino iritsi ziren. Gizagaixoa erori ez zenean!

Gauza bitxiak gertatu ziren, gainera, autobusean. Andre dotore batek, bat-batean, autobus gidaria besarkatu zuen eta garrasika hasi zen:

–Saguak! Koloretako saguz beteta dago autobusa!

–Ez dira saguak; elefanteak dira –erantzun zion alboko gizonak, Mirentxuren motxilatik eroritako plastikozko animalia txikitxo batzuk ostikoz joz.

–Lasai, hemen nago eta! –egin zuen oihu begiratzaileak.

Hura komeria! Baina, azkenean, iritsi ziren geralekura!

Jaitsi zen Mirentxu autobusetik, eta a zer lasaitua hartu zuten autobus gidariak eta begiratzaileak!

NICOLETTA COSTA eta ODDO BRACCI
(Moldatua)

1

Zein da eguneko unerik okerrera Mirentxurentzat?

- ☐ Oheratzeko unea.
- ☐ Putzuetan sartzeko unea.
- ☐ Ohetik jaikitze unea.

2

Zein gauza zituen Mirentxuk motxilan? Idatzi **BAI** ala **EZ**.

sagarra _____

puxtarriak _____

autobusa _____

liburuak _____

3

Jarri ordenan Mirentxuk egindakoa. Idatzi **1, 2, 3** eta **4**.

- ☐ Diru bila aritu zen motxilan.
- ☐ Autobusera igo zen.
- ☐ Etxetik irten zen.
- ☐ Putzu guztietan sartu zen.

4

Zer esan zuen andre dotoreak?

5

Inguratu Mirentxuren motxilatik eroritakoak:

plastikozko animalia txikiak

puxtarriak

egiazko animalia txikiak

begiratzailearen zapatak